Soinu Atadia
Udal Elkartea
Leioa

| | |
|---|---|
| UDALEKO MUSIKA KONTSERBATORIO/ESKOLAN ZUZENDARITZARAKO ZERBITZU-EGINKIZUNA ESLEITZEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK. | BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PARA LA ASIGNACION DE UNA COMISION DE SERVICIOS EN ORDEN A REALIZAR FUNCIONES DE DIRECCION DEL CONSERVATORIO/ESCUELA MUNICIPAL DE MUSICA. |
| Lehena. Deialdiaren xedea. | Primera. Objeto de la convocatoria. |
| Deialdi honen helburua da Soinu Atadia erakunde autonomoko lan-kontratudun irakasleak hautatzea, zuzendaritzarako zerbitzu-eginkizunak esleitu ahal izateko. | Es objeto de la presente convocatoria la selección de personal laboral docente del Organismo Autónomo Soinu Atadia, en orden a la asignación de una comisión de servicios para desempeñar las funciones de Dirección. |
| Lan-jardunaldia osoa izango da, eta erakunde autonomoak onetsitako zerbitzuaren eta egutegiaren eta ordutegi-beharren arabera erabakiko da. Arduraldi berezia eskatzen duten eginkizunak direnez, arduraldi osagarria esleitzen zaie. | La jornada laboral será completa y se determinará en función de las necesidades del servicio y del calendario/horario aprobado por el Organismo Autónomo. Son funciones que conllevan dedicación especial, por la cual se asigna el referido complemento de dedicación. |
| Bigarrena. Eginkizunak. | Segunda. Funciones. |
| Zuzendaritzako eginkizunak dira ikastetxeko irakaskuntzaren eta administrazioaren zuzendaritza, eta, orobat, taldeen laguntza artistikoa. Esleituta dauden ordainsariak osatzeko erabili dira Udalhitzeko 20. ordainsari-maila, alde batetik, eta arduraldi bereziko osagarri bat, bestetik, hilean 435,79 euroko zenbatekoarekin (arduraldi horren arabera ordaintzen dira ohiko lan-jardunaldiaz kanpoko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eta aipatutako laguntza artistikoa). | Las funciones de Dirección conllevan la dirección docente y la administrativa del Centro, además del acompañamiento artístico de los grupos. Las retribuciones asignadas están compuestas por un nivel retributivo 20 de Udalhitz, así como por un complemento de dedicación especial, por importe mensual de 435,79 € (dedicación que retribuye, además del desempeño de las funciones propias del puesto fuera de la jornada laboral habitual, el referido acompañamiento artístico). |

| | |
|---|---|
| Hirugarrena. Hautagaien betebeharrak. | Tercera. Condiciones de los aspirantes. |
| Parte hartzeko baldintza hau bete beharko da: Udaletxeko iragarki-taulan deialdia argitaratutako egunean erakunde autonomoan jardunaldi osoko lan-kontratudun irakaslea izatea, jarduneko zerbitzuan ari dena, eta musikako goi mailako edozein espezialitatetan titulua duena; graduatua, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria edo horiekin baliokidetza legez aitortuta duen goi mailako beste edozein titulazio izatea. | Podrá tomar parte el personal docente que reúna la condición de personal laboral fijo, a tiempo completo, del Organismo Autónomo que, en la fecha de publicación de la convocatoria en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento, se halle en situación de servicio activo, y esté en posesión del título superior de música (en cualquiera de sus especialidades), graduado, licenciado, arquitecto, ingeniero o cualquier otra titulación superior que tenga reconocida legalmente su equivalencia con éstas. |
| Eskakizun horiek bete beharko dira hemen adierazitako funtzioak esleitzeko ebazpena iritsi arte. Parte hartzeko eskakizunak betetzen ez dituzten parte-hartzaileak ezin izango dira aukeratu zerbitzu-eginkizunetarako. | El cumplimiento de esos requisitos deberá mantenerse hasta la resolución por la que se asignen las funciones aquí referidas. Aquellos participantes que no mantengan el cumplimiento de los requisitos de participación, no podrán ser asignados en comisión de servicios. |
| Laugarrena.- Eskabideak aurkezteko epea. | Cuarta.-Plazo de presentación de solicitudes. |
| 1. Eskaerak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian dekretu hau argitaratzen den egunetik aurrera. | 1. El plazo de presentación de solicitudes será de 10 días hábiles desde la publicación del presente Decreto en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal. |
| 2. Deialdi honetan parte hartzeko eskaera erakunde autonomoko eta Udaleko Erregistro Orokorrean interesa dutenen esku jarriko den instantzia normalizatuaren ereduaren arabera egingo da. | 2. La solicitud de participación en la presente convocatoria se formulará en el modelo de instancia normalizada que se pondrá a disposición de los interesados en el Registro General del Organismo Autónomo y del Ayuntamiento. |

| | |
|---|---|
| 3. Eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskatzaileak eginiko eskaerak lotesleak izango dira. | 3. Una vez transcurrido el periodo de presentación de solicitudes, las instancias formuladas serán vinculantes para los solicitantes. |
| 4. Eskaera aurkezteko epea bukatutakoan, presidentziak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Ebazpen hori Udaletxeko iragarki-oholean eta web-orrian jarriko da ikusgai. | 4. Terminado el plazo de presentación de instancias, la Presidencia aprobará la lista provisional de los/as aspirantes admitidos/as y excluidos/as. Dicha resolución se hará pública en el Tablón de Anuncios y en la web del Ayuntamiento. |
| Zerrenda horretan adieraziko da, baztertutako hautagaietako bakoitzari dagokionez, hura baztertzeko arrazoiak zein izan diren, eta baztertze horren aurka erreklamatzeko 3 egun baliodunеko epea emango da, erreklamazioaren arrazoi izan diren hutsegiteak edo dokumentuak konpondu ahal izateko. Erreklamazioak egiteko epea amaitutakoan, hautagaiak onartzeko edo baztertzeko ebazpena onetsi duen agintariak erreklamazioak ebatziko ditu, eta aurreko paragrafoan adierazitako eran emango ditu aditzera. | Tal relación expresará, con referencia a cada uno/a de los/as aspirantes excluidos/as, las causas que hubieran motivado su exclusión, concediendo un plazo de 3 días hábiles para reclamar contra tal exclusión y subsanar las faltas o documentos que hubieran motivado la misma. Transcurrido el citado plazo de reclamaciones, la autoridad que hubiera aprobado la resolución de admisión y exclusión de aspirantes resolverá las reclamaciones presentadas y se hará público en la forma indicada en el párrafo anterior. |
| Bosgarrena.- Merezimenduen balorazioa eta egiaztapena. | Quinta.-Valoración y acreditación de méritos. |
| 1. Eskabideari aurkezturiko merezimenduen zerrenda erantsiko zaio nahitaez, eta horrekin batera merezimenduon taxuzko frogagiriak. Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epean alegatzen eta egiaztatzen direnez beste merezimendurik, ezta epe horretan alegatu arren geroago frogatzen denik ere. Eskaerak argudiatutako merituak epearen barruan aurkeztu bai, baina geroago justifikatuak badira, baloratu egin ahal izango dira, baldin eta meritu horien frogagiriak interesdunen esku | 1. A la instancia se acompañará necesariamente la declaración en la que se relacionen los méritos alegados, así como los documentos suficientemente acreditativos de los mismos. No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente. Aquellos méritos alegados dentro del plazo de presentación de instancias pero justificados posteriormente, podrán |

| | |
|---|---|
| ez bazeuden, haiei leporatu ezinezko arrazoiengatik, eta pertsona horiek eskariak aurkezteko epearen barruan frogagiri egokiak eskatuta balituzte. | ser valorados si las acreditaciones de dichos méritos no estaban a disposición de las personas interesadas por causas no imputables a las mismas y dichas personas hubiesen solicitado los correspondientes justificantes dentro del plazo de presentación de instancias. |
| 2. Eskaerak aurkezteko epearen itxiera-egunaren arabera baloratuko dira merituak; egun hori izango da, orobat, eskatutako baldintzak betetzeko erreferentzia-data. | 2. Los méritos se valorarán con referencia a la fecha del cierre del plazo de presentación de solicitudes, que asimismo será la fecha de referencia para el cumplimiento de los requisitos exigidos. |
| 3. Deialdi honetako baremoei jarraituta nahitaez bete beharreko hilabeteen zenbaketa guztiak honako formula honen arabera egingo dira: | 3. Todos los cómputos de meses a que obliguen los baremos de la presente convocatoria se realizarán con arreglo a la siguiente fórmula: |
| (Egun kopurua/365) x 12, dezimalik gabe. | (Número de días/365) x 12, despreciando decimales. |
| Seigarrena.- Balorazio-batzordea. | Sexta.-Comisión de valoración. |
| Deialdi honi dagozkion frogak eta merituak baloratu ahal izateko, balorazio-batzordea osatuko da. Balorazio-batzordea alkatetzak izendatutako kide-kopuru bakoitiz osatuko da: haietako bat batzordeburua izango da, eta beste bat idazkaria. | Al objeto de valorar las pruebas y méritos correspondientes a la presente convocatoria, se constituirá una Comisión de valoración. La Comisión de valoración estará constituida por un número impar de miembros, designados por la Alcaldía, de entre los que uno actuará como presidente y otro como secretario. |
| Hautatze-batzordeko kide guztiek deialdiko lanpostuak betetzeko eskatutako maila akademiko bereko edo handiagoko titulua izan beharko dute. | Todos los miembros de la comisión de selección deberán poseer una titulación de igual o superior nivel académico al de la exigida para la provisión de los puestos convocados. |
| Iragarki-taulan argitaratutako ebazpenaren bidez jakinaraziko da jendaurrean balorazio-batzordeko | Mediante Resolución publicada en el tablón de anuncios se hará pública la designación de los miembros de la |

| | |
|---|---|
| kideen eta haien ordezkoen izendapena. | Comisión de valoración, así como sus suplentes. |
| Balorazio-batzordeko kideek ezin izango dute esku hartu, eskumena duen organoari jakinarazita, eta hautagaiek haiek ezetsi ahal izango dituzte, baldin eta sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean horrelakoetarako aurreikusita dauden inguruabarrak tartean badira. | Los miembros de la Comisión de valoración deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al órgano competente, y los aspirantes podrán recusarlos, cuando concurran las circunstancias previstas para estos supuestos en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. |
| Zazpigarrena.- Esleitzeko proposamena. | Séptima.- Propuesta de asignación. |
| 1. Balorazio-batzordeak zerbitzu-eginkizunak esleitzeko proposamena egingo du, eta azken puntuaziorik handiena jasotzen duenak izan beharko du proposatutako hautagaia. | 1. La Comisión de Valoración efectuará la propuesta de asignación de la comisión de servicios, que deberá recaer sobre quien haya obtenido mayor puntuación final. |
| 2. Lehiaketa osoko puntuazioan berdinketa izanez gero, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuak erabakitzeko: | 2. En el supuesto de empate en la puntuación del conjunto del concurso, se acudirá para dirimirlo a los criterios siguientes: |
| a) Deialdiko baremoan finkatutako gehienezko puntu-kopuruaren arabera ordenatutako meritu orokorrak, puntuazio handienetik txikienera. Merituek puntuazio bera finkatuta izanez gero, deialdiaren oinarrietan adierazita dagoen ordenaren arabera. | a) A los méritos generales ordenados según la puntuación máxima establecida en el baremo de la convocatoria, de mayor a menor puntuación. Cuando los méritos tengan establecida la misma puntuación, según el orden expresado en las bases de la convocatoria. |
| b) Berdinketak iraunez gero, hurrenez hurren, honako hauek hartuko dira aintzat: lan-kontratudun langile finko moduan antzinatasunik handiena duena, behin betiko azken lanpostuan antzinatasunik handiena duena eta Administrazioan antzinatasunik handiena duena. | b) De persistir el empate se acudirá, por este orden, a la mayor antigüedad como personal laboral fijo, a la mayor antigüedad en el último puesto definitivo y, a la mayor antigüedad en la Administración. |
| c) Berdinketa hausteko bestelako irizpiderik behar bada, balorazio- | c) Si se precisa algún criterio de desempate adicional, la comisión de |

Soinu atadia
Udal elkartea
Leioa

| | |
|---|---|
| batzordeak merezimenduaren printzipioari jarraiki ebatziko du. | valoración lo determinará, de acuerdo con el principio de mérito. |
| 3. Balorazio-batzordearen proposamena Udaletxeko iragarki-taulan jakinaraziko da jendaurrean, batzorde horren erabakiaren bidez. Erabaki horren aurka, lehiaketan parte hartzen duten langileek erreklamazioa egin ahal izango dute, hiru egun baliodunеko epean, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. Erreklamazio horien inguruko kontuak balorazio-batzordeak erabakiko ditu. | 3. La propuesta de la Comisión de Valoración se hará pública, mediante acuerdo de la misma, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. Contra dicho acuerdo el personal concursante podrá reclamar, en el plazo de tres días hábiles, desde el día siguiente al de su publicación. Estas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de Valoración. |
| Zortzigarrena.- Ebazpena. | Octava.-Resolución. |
| 1. Argitaratutako proposamenaren aurkako erreklamazioari buruzkoak behar bezala erabakita, balorazio-batzordeak eskainitako zerbitzu-eginkizunak esleitzeko proposamena igorriko dio eskumena duen organoari. | 1. Resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la propuesta publicada, la Comisión de Valoración elevará propuesta de asignación de la comisión de servicios ofertada al órgano competente. |
| 2. Proposamena jaso ondoren, eskumena duen organoak onetsi, eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratzeko aginduko du. | 2. Recibida la propuesta, el órgano competente, previa su aprobación, ordenará su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. |
| 3. Lan-jarduneko egoeran izanik, baimenak, lizentziak, oporrak edo bestelako gertaerak direla-eta langileek dagozkien zerbitzuak eraginkortasunez egin ezin dituzten kasuetan, zerbitzu-eginkizunen esleipena atzeratu egingo da horiek bukatzen diren egunera arte. Salbuespen moduan, behar bezala justifikatuta eta arrazoituta, langileek eskubide horietaz baliatzea eteteko erabakia hartu ahal izango du eskumena duen organoak. Hala eta guztiz ere, antolakuntzako arrazoiek hala komeni dela erakutsiz gero, esleitzeko ebazpenean, esleipendun langileei zerbitzu-eginkizuna | 3. La asignación, de la comisión de servicios, se diferirá a la fecha de la finalización de los permisos, licencias, vacaciones, o cualquier otra circunstancia en la que se encuentre el personal que, manteniendo la situación de servicio activo, impida la prestación efectiva de sus servicios. Excepcionalmente, por causas justificadas y debidamente motivadas, el órgano competente podrá acordar suspender el disfrute de los mismos. No obstante, cuando razones organizativas lo aconsejen, en la resolución de asignación se podrá determinar la fecha concreta de asignación de la comisión al personal adjudicatario. |

| | |
|---|---|
| esleitzeko egun zehatza erabaki ahal izango da. | |
| Bederatzigarrena.- Errekurtsoak. | Novena.-Recursos. |
| Administrazio-bidean behin-betikoa den Ebazpen honen eta haren oinarrien aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jarri ahal izango da, dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, BI HILABETEKO EPEAN, deialdi hau argitaratu eta biharamunetik hasita. | Contra la presente Resolución y sus bases, que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer en el plazo de DOS MESES contados desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria, RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Bilbao que corresponda. |
| Hala ere, eta aukeran, aurreko paragrafoan aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa jarri aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango zaio orain jakinarazitako administrazio-ekintza agintzen duen organo berberari, HILABETEKO EPEAN, deialdi hau argitaratu eta biharamunetik hasita. Berraztertzeko errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean horren ebazpenaren jakinarazpena jaso ezik, administrazioaren isiltasunaren bidez atzera bota dela joko da. | No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, podrá interponerse RECURSO DE REPOSICION ante el mismo órgano que dictó el acto administrativo que ahora se notifica, y esto en el plazo de UN MES que se contará desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria. Tal recurso de reposición se entenderá desestimado por silencio administrativo si, en el transcurso de un mes desde la fecha de su interposición, no se le notifica la resolución del mismo. |
| I. ERANSKINA | ANEXO I. |
| OINARRI ZEHATZAK | BASES ESPECIFICAS |
| Lehena.- Puntuazioak, baremoa eta merezimenduak. | Primera.-Puntuaciones, baremo y méritos. |
| Lehiaketa honetan puntu hauek lortu ahal izango dira gehienez: | La puntuación máxima alcanzable en el presente concurso, es la siguiente: |
| 1. Antzinatasuna. | 1. Antigüedad. |
| Euskal Administrazio publikoan | Por cada mes completo de servicios en la Administración Pública Vasca, |

| | |
|---|---|
| zerbitzuak egiteagatik: 0,5 puntu urte bakoitzeko, eta gehienez 40 puntu. | se computará 0,5 puntos, hasta un máximo de 40 puntos. |
| Horretarako, lan-kontratudun langile finkoaren izaera eskuratu baino lehenagotik egindako zerbitzu aitortuak ere baloratuko dira. Gaixotasunez baja-egoeran izandako aldiei dagokien saria kendu egingo da, lan-istripuek eragindako bajei dagokiena izan ezik. | A estos efectos, se valorarán también los servicios reconocidos que se hubieran prestado con anterioridad a la adquisición de la condición de personal laboral fijo. Se deducirán los periodos de permanencia en situación de baja por enfermedad, salvo que lo sea por accidente de trabajo. |
| 2. Egindako lana | 2. Trabajo desarrollado |
| Lantaldeko lan-kontratudun langile gisa izendatu ondoren baloratuko da egindako lana. Zerbitzu aktiboko egoeran gauzatutako egiazko lana baloratuko da, norbere eginbeharrengatik eta eszedentziengatik hartutako baimenei dagozkien denbora-tarteak izan ezik, 30 puntura bitartean gehienez, goi-mailako irakasle-kategorian hilabete oso bakoitzeko 0,40 puntu baloratuta, eta zuzendari hilabete oso bakoitzeko 0,30 puntu baloratuta. | El trabajo desarrollado será valorado a partir del nombramiento como personal laboral fijo de plantilla. Se valorará el trabajo efectivamente desarrollado en situación de servicio activo, excluyendo los periodos correspondientes a permisos por asuntos propios y excedencias, hasta un máximo de 30 puntos, valorándose 0,40 puntos por mes completo de trabajo en la categoría de Profesor Superior y 0,30 puntos por cada mes completo de trabajo en la categoría de Director. |
| 3. Trebakuntza eta hobekuntzako ikastaroak: | 3. Cursos de formación y perfeccionamiento. |
| Zerbitzu-eginkizunak betetzeko postuei edota funtzioei lotutako edukia duten sektore publikoko erakundeek irakatsitako ikastaroak era berezian baloratuko dira, gehienez 8 puntu lortu arte; ikasitako 20 ikastaro-ordurekin 2 puntu emango dira. | Se valorarán, hasta un máximo de 8 puntos, exclusivamente los cursos impartidos por entidades del sector público, cuyo contenido estuviera relacionado con las del puesto/funciones a desempeñar en comisión de servicios, a razón de 2 puntos por cada 20 horas de curso. |
| 4. Titulazio akademiko ofizialak. | 4. Titulaciones académicas oficiales. |
| Musikako goi-mailako tituluak izatea, gehienez 12 puntu lortu arte; titulu bakoitzagatik 4 puntu emango dira. | Hallarse en posesión de títulos superiores de música, hasta un máximo de 12 puntos, a razón de 4 puntos por cada título. |

| | |
|---|---|
| Inolaz ere ez dira baloratuko deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintza gisa eskatzen diren tituluak. | En ningún caso se valorarán las titulaciones que se exijan como requisito indispensable para participar en la convocatoria. |
| Inolaz ere ez dira gehitzeko eran baloratuko goragoko maila batera iristeko igaro beharrekoak diren tituluak; hala ere, aukera dago izan daitezkeen titulu desberdinak batzeko, betiere finkatutako gehieneko muga zainduta. | En ningún caso se valorarán acumulativamente las titulaciones cuya superación constituya requisito para acceder a otra superior, aunque sí se pueden sumar, siempre con el tope establecido, distintas titulaciones que, su caso, se puedan poseer. |
| 5. Euskara. | 5. Euskera. |
| Lanpostuari esleitutako hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa ez den bitartean, honela balioetsiko da: | En tanto el perfil lingüístico asignado al puesto no sea preceptivo, se valorará de la siguiente manera: |
| - 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 12 puntu.<br>- 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 15 puntu | - Por la acreditación del perfil lingüístico 3: 12 puntos.<br>- Por la acreditación del perfil lingüístico 4: 15 puntos |
| Bigarrena.- MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEA. | Segunda.- ACREDITACION DE MERITOS. |
| Antzinatasuna: Antzinatasuna ofizioz erantsiko denez, hura frogatzea ez da beharrezkoa izango. | Antigüedad: La antigüedad se incluirá de oficio, por lo que no será necesaria su acreditación. |
| Egindako lana: Leioako Udalak egindako lana ere ofizioz erantsiko da, eta ez da haren frogagirik beharko. | Trabajo desempeñado: El trabajo desempeñado en el Ayuntamiento de Leioa se incluirá de oficio por lo que no será necesaria su acreditación |
| Ikastaroak eta titulazioak: Gainditutako hobetze-ikastaroak, norberak emandako ikastaroak eta titulu ofizialak egiaztatu egin beharko dira, haiek antolatu edo deitu dituen erakundearen kopiaren edo frogagiriaren bidez. | Cursos y titulaciones: Los cursos de perfeccionamiento superados y los cursos impartidos, así como los títulos oficiales serán acreditados mediante copia o certificado del Organo que los haya organizado o convocado. |

| | |
|---|---|
| Eskaerak aurkezteko epea itxitako egunari erreferentzia eginez baloratuko dira merituak. | Los méritos se valorarán con referencia a la fecha del cierre del plazo de presentación de solicitudes. |

LA ALCALDESA ACCTAL.l

Fdo. ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO

Leioa, 7 de agosto de 2018